

# Koiuntura di-da batean

2018ko urtarrila

## Aurkibidea

1. BPG
  2. Enplegua
  3. Langabezia
  4. Prezioak
  5. Konfiantza
  6. Ekonomia sentimentua
- Eranskina

### 1. Eusko Jaurlaritzak gorantz zuzendu du hazkunde aurreikuspena.

EAEko ekonomia 2018an %2,5 haziko dela aurreikusten da.

### 2. Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkunde erritmoari eutsi dio.

Hirugarren urtez jarraian, gehikuntza tasa %2,0aren ingurukoa izan da.

### 3. EAEn lau urtez jarraian jaitsi da langabezia.

Lanik gabeko pertsonen kopurua 130.000 eskatzaileen azpitik dago.

### 4. Esportazioen prezioak berriro igo ziren hirugarren hiruhilekoan.

Garestitzea kapitaleko eta bitarteko ondasunetan gauzatu da.

### 5. EAEko familien konfiantza maila positibotan dago.

Enpresak baikorrak dira, baina aurreko hiruhilekoan baino zertxobait gutxiago.

### 6. Europako ekonomia sentimentuaren indizeak nabarmen egin du hobera.

Europar Batasuneko herrialde guztiek 100 puntuko langa gaintu dute.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA EKONOMIA  
SALA  
Ekonomia eta Finantza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
Dirección de Economía y Financiación

# EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK


## Eusko Jaurlaritzak gorantz zuzendu du hazkunde aurreikuspena

**Barne produktu gordinaren bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko eta inguruneko informazio ekonomiko berria argitaratuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2017rako eta 2018rako ekonomia aurreikuspenak berrikusi ditu. Hazkunde aurreikuspenen eguneratzeak adierazten du 2017rako aurreikusi zen %2,9ko aldakuntza tasa bere horretan utzi duela, baina goranzko zuzenketa txikia egin du 2018rako, urte horretarako hazkunde tasa %2,5ean kokatu arte. Beraz, oraindik pentsatzen da gaur egungo bizitasuna motelduko dela 2018ko lau hiruhilekoetan. Joera bera islatzen da lan merkatuan, non enplegua 2017an eta 2018an, hurrenez hurren, %2,0 eta %1,7 haziko dela uste baita. Eskariaren ikuspegitik, kontsumoak ezagutuko du apaltze biziena eta inbertsioak %3,3aren inguruko hazkunde egonkorra erakutsiko du.


**Azken kontsumoaren bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Inbertsioaren bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Industriaren balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Eraikuntzaren balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Zerbitzuen balio erantsia**  
Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzari dagokionez, aurreikuspenek seinaltzen dute jarduera adar guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen positiboa egingo diotela barne produktu gordinaren hazkunderari.

Urteko batez bestekoan, industriaren aldakuntza tasa %2,5 izango da 2017an eta %2,8, berriz, 2018an. Eraikuntzak hazkunde positiboa lortuko du, bizitasun iraunkorra erakutsiz. Beste aldetik, zerbitzuek moteltzeko joera neurrtsua marraztuko dute, baina gehikuntza esanguratsuak eskuratuko dituzte, hots, %3,1 eta %2,6, hurrenez hurren, 2017an eta 2018an. Industria eta zerbitzuak izango dira EAEko ekonomiaren motor bultzagileenak.

**Enplegua**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Langabezia tasa**  
Urte arteko aldakuntza tasa




## GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkunde erritmoari eutsi dio

### Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira


Urte arteko aldakuntza tasa



Lau urtez jarraian kotizatzaile berriak gehitu ondoren, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen kopurua 943.987ra iritsi zen 2017ko amaieran. Urtetik urtera hurbilago dago 2008an zegoen kopurutik, garai hartan jaso baitzen EAEn afiliatuen mailarik gorena. Urteko batez bestekoan neurtuta, 2017ko gehikuntza %2,1 izan zen. Tasa horrek zertxobait hobetu ditu aurreko bi urteetako emaitzak eta azken hamar urteko zifrarik altuena da. Berrito ere, gehikuntza hori erregimen orokorraren afiliazioan oinarritu zen, beraren abenduko hazkunde %2,8 izan zelako, sistema osoarena nabarmen gaindituz. Gertakari hori etengabe gertatzen ari da azken hilekoetan.


### Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak

Urte arteko aldakuntza tasa




### Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak


Urte arteko aldakuntza tasa



**Afiliazioa industrian**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Afiliazioa zerbitzuetan**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Berrito ere, ekonomiaren hiru sektore nagusiek portaera positiboa erakutsi zuten. Hiruren artean, zerbitzuen bizitasuna nabarmendu behar da, 2017ko batez bestekoan %2,1 areagotu zutelako beren afiliazioa, bai industriaren bai eraikuntzaren tasa %1,8 izan zen bitartean. Azken sektore horren kasuan, izan duen susperraldi nabarmena azpimarratu behar da, 2016ko emaitza %0,0 izan zelako. Hala ere, oraingo kopurua oraindik oso urrun dago higiezinaren burbuila lehortu baino lehen arloak zeukan kopuru maximoetatik. Alde negatiboenean, finantza jarduerak ez du oraingoz hondoa jo eta beste 666 afiliatu gehiago galdu ditu, sektorearen zerbitzuak modu digitalean eskaintzeko bideratzen ari den moldaketaren ondorioz.


#### Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak

	2016ko abendua	2017ko abendua	Aldakuntza
<b>AFILIAZIOA GUZTIRA</b>	<b>925.291</b>	<b>943.987</b>	<b>18.696</b>
Industria manufakturagileak	170.384	173.423	3.039
Merkataritza	138.854	139.178	324
Osasun arloko jarduerak	91.275	93.876	2.601
Hezkuntza	66.298	71.306	5.008
Ostalaritza	63.268	65.004	1.736
Administrazio jarduerak	63.237	65.548	2.311
Lanbide jarduerak	53.270	54.408	1.138
Eraikuntza	52.780	53.958	1.178
Administrazio publikoa	47.096	47.179	83
Garraioa	39.717	40.658	941
Etxeko langileak	31.121	30.911	-210
Bestelako zerbitzuak	28.956	28.807	-149
Informazioa eta komunikazioa	21.391	21.650	259
Finantza jarduerak	18.716	18.050	-666
Jarduera artistikoak	15.349	15.946	597
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.854	11.823	-31
Ur horniketa	5.672	5.887	215
Higiezinaren jarduerak	3.755	3.878	123
Energia horniketa	1.667	1.879	212
Erauzketa industriak	588	571	-17
Lurraldez kanpoko erakundeak	44	49	5

## LANGABEZIA ERREGISTRATUA

### EAEEn lau urtez jarraian jaitsi da langabezia

**Langabezia erregistratua guztira**  
Urte arteko aldakuntza tasa





Lanbideko bulegoetan 127.547 langabe zeuden izena emanda 2017ko abenduan, hots, aurreko urteko hileko berean zeudenak baino 8.626 pertsona gutxiago. Urte arteko jaitsiera hileko horretan, beraz, %6,3 izan zen, baina urte osoko batez besteko murrizketa handiagoa izan zen eta %8,6ra iritsi, 2016ko batez bestekotik oso hurbil (%8,8). Aurreko urteetan bezala, jaitsiera horiek biziagoak izan ziren gizonen artean emakumeen artean baino. Hain zuzen ere, lehen kasuan murrizketa %9,0ra iritsi zen eta bigarrenean, berriz, %4,1ean kokatu zen. Diferentzia hori azaltzen duten arrazoietako bat emakumeek lan merkatuan parte hartzeko erakusten duten interes gero eta handiagoa da, gaur egungo enplegu sorrera biziak sortu dituen aukerek areagotuta.

**Langabezia erregistratua. Emakumeak**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Langabezia erregistratua. Gizonak**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Langabezia erregistratua. Gazteak**  
 Urte arteko aldakuntza tasak

**Langabezia erregistratua. Atzerritarrak**  
 Urte arteko aldakuntza tasak


Gazteen langabeziaren analisiari dagokionez, talde horren langabeziaren jaitsiera guztizkoarena baino biziagoa izan zen, %13,6ko beherakada jasota. Horri esker, laugarren urtez jarraian izan du %10etik gorako jaitsiera bat. Langabezia nabarmen gutxitu duen beste kolektibo bat atzerritarrena da, abenduan %-3,7ko aldakuntza izan baitzuen, baina urte osoko batez bestekoan %-7,4ko beherakada lortu zuena, aurreko bi urteetako emaitza biziki hobetuz. Hala eta guztiz ere, urtean zehar jaitsiera erritmoa moteldu dela begi bistakoa da, eskatzaile berriak sisteman sartu direlako. Sektoreka aztertuta, industriak bilakaera ona erakutsi zuen eta bere langabezia %8,1 murriztu zen, zerbitzuetan lortutako jaitsiera ia bikoiztuz. Dena dela, eraikuntzak erakutsi zuen langabeziaren beherakadarik biziarena (%15,4).


**Langabeak**

	2016ko abendua	2017ko abendua	Aldakuntza
<b>LANGABEAK GUZTIRA</b>	<b>136.173</b>	<b>127.547</b>	<b>-8.626</b>
<b>LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA</b>			
Araba	22.131	20.639	-1.492
Bizkaia	77.077	72.936	-4.141
Gipuzkoa	36.965	33.972	-2.993
<b>SEXU ETA ADINAREN ARABERA</b>			
Gizonak	62.353	56.740	-5.613
Emakumeak	73.820	70.807	-3.013
25 urtetik beherakoak	8.182	7.073	-1.109
25 urte baino gehiago dutenak	127.991	120.474	-7.517
<b>EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA</b>			
Lehen arloa	3.206	2.990	-216
Industria	17.313	15.907	-1.406
Erakuntza	12.411	10.503	-1.908
Zerbitzuak	87.792	83.631	-4.161
Lehenago lan egin dutenak	120.722	113.031	-7.691
Lehenago lan egin ez dutenak	15.451	14.516	-935
<b>ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK</b>			
Langabe atzerritarrak	21.539	20.734	-805

## PREZIOAK

### Esportazioen prezioak berriro igo ziren hirugarren hiruhilekoan

**Esportazioak eta inportazioak. Uneko prezioak**  
Urte arteko aldakuntza tasak



**Esportazioak eta inportazioak. UBI**  
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat.

Eustatek hiruhilekoan behin informazio zabala eskaintzen du kanpo merkataritzaren bilakaeraz unean uneko prezioetan. Datu horiek termino iraunkorretan aztertu ahal izateko deflatatu behar dira. Unitate Balioaren Indizeak (UBI) baliagarriak dira kanpo merkataritzako prezioen bilakaera ezagutzeko, zeren esportazioen eta inportazioen balioaren gehikuntza baten atzean bi arrazoi egon baitaitezke: gehiago saldu izana edo salerosketa kopuru bera baina prezio garestiagoetan egin izana; edo bietako konbinazio bat.

Beraz, adierazle horietan oinarrituta, esportazioen prezioak %4,6 igo ziren hirugarren hiruhilekoan eta bederati hileko kateatu dituzte hazkunde positiboak biltzen. Inportazioen salneurrien bilakaera are biziagoa izan zen eta %8,7 garestitu ziren. Kasu horretan, urtebete oso batean igo da prezioa.

#### KANPO MERKATARITZAREN UNITATE BALIOAREN INDIZEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015				2016				2017		
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Esportazioak	-1,4	-0,5	-2,6	-2,1	-4,0	-4,2	-2,1	-0,3	2,5	2,3	4,6
Inportazioak	-11,5	-8,9	-14,2	-15,1	-10,4	-11,6	-5,0	2,8	11,7	7,8	8,7

Iturria: Eustat.



**ESPORTAZIOEN UBI ERABILPEN TALDEAREN ARABERA**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**

	2015		2016				2017		
	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Kontsumo ondasunak	-1,0	-0,9	0,8	-0,3	0,1	1,4	-0,4	-1,5	-0,2
Elikadurak, edariak eta tabakoa	4,4	-1,0	0,9	1,4	0,1	-0,3	0,3	1,3	-1,6
Bestelako kontsumo ondasunak	-2,1	-0,9	0,9	-0,6	0,0	1,8	-0,5	-2,0	0,0
Kapital ondasunak	0,3	1,1	-4,6	0,2	-1,2	4,1	-0,8	-2,4	3,5
Bitarteko ondasunak	-2,4	-0,8	-2,2	0,0	0,9	0,7	1,4	0,9	3,3
Bitarteko produk. energetikoak	-16,9	-13,7	-5,9	10,7	-5,3	7,0	7,8	1,8	9,6
Bitarteko produk. industrialak	-0,3	-0,8	-1,8	-0,4	1,3	0,4	1,0	0,5	2,9

Esportazioen prezioen igoera kapitaleko ondasunen garestitzean, sei hilekoz jarraian jaitsi ondoren %3,5 igo baitziren, eta bitarteko ondasunen prezio igoeran, hala energiako bitarteko produktuena nola industriako bitarteko produktuena, oinarritu zen. Aitzitik, kontsumoko ondasunak berriro merkatu ziren. 2017ko hirugarren hiruhilekoan, gainontzeko kontsumo ondasunen geldotasunari elikadurak, edariak eta tabakoa biltzen dituen atalarena gehitu zitzaion, ezin izan duelako bere susperraldia finkatu. Inportazioen prezioek, berriz, talde guztien igoerari esker egin zuten gora, baita bitarteko ondasunenari esker ere, aurreko hiruhilekoan eremu positiboan kokatzea lortu ez zuen arren.

Ekonomia eremuka, esportazioen prezioak antzeko tamainan hazi ziren eremu garatu guztietan, nahiz eta EAEn jaso ziren gehikuntza baino zertxobait gutxiago igo ziren. Munduko gainontzeko eremuetan, berriz, garestitzea zertxobait handiagoa izan zen. Area guztietan, kontsumoko ondasunen prezioak jaitsi ziren (Europar Batasunean %2,7ra iritsi zen jaitziera) eta kapitaleko zein bitarteko ondasunen salneurriak nabarmen igo ziren.


**ESPORTAZIOEN UBI EKONOMIA EREMUEN ARABERA**  
**Urte arteko aldakuntza tasak**

	2015		2016				2017		
	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III
Euskadi	-2,6	-2,1	-4,0	-4,2	-2,1	-0,3	2,5	2,3	4,6
Eurogunea	-6,9	-4,7	-6,7	-5,9	0,0	0,0	3,7	4,5	4,0
Europar Batasuna	-5,3	-3,6	-5,9	-5,5	-0,8	-1,1	2,7	3,6	4,1
ELGE	-3,0	-1,8	-5,6	-4,7	-1,8	-0,6	2,9	2,3	4,2
Munduko besteak	-0,5	-3,6	3,2	-1,8	-3,2	1,6	0,5	2,4	6,7

## KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA

### EAEko familien konfiantza maila positibotan dago

#### Familien konfiantza indizea




EAEko familien konfiantza indizea balio positibotan finkatu zen 2017ko laugarren hiruhilekoan eta 1eko balioa lortu zuen. Are gehiago, adierazleak gora egin zuen aurreko hiruhilekoan jasotako emaitza apalaren aldean. Konfiantza indizearen 2017ko batez besteko balioa ere 1ekoa izan zen, 2016an -5ean kokatu zen bitartean. Goranzko joera horren oinarrian, EAEko kontsumitzaileek ekonomia orokorraz eta enpleguaren hobekuntzaren igurikimenaz duten iritzi baikorragoa dago. Aitzitik, familiaren ekonomiaz eta aurrezteko igurikimenaz duten konfiantza oraindik balio negatibotan dago. Beste adierazle batzuei buruz erantzun dutenez, kontsumitzaileek prezioen hazkundera areagotuko dela eta erosteko unea egokiagoa dela uste dute, nahiz eta azken aldagai hori oraindik balio negatibotan kokatuta dagoen.

#### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2015	2016	2017	2016		2017		
				IV	I	II	III	IV
<b>Kontsumitzaileen konfiantza</b>	<b>-6</b>	<b>-5</b>	<b>1</b>	<b>-3</b>	<b>-3</b>	<b>5</b>	<b>0,4</b>	<b>1</b>
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	-5	-3	12	9	6
Familien ekonomia	-9	-5	-5	-3	-8	-3	-5	-4
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	9	10	23	7	9
Aurrezteko ahalmena	-16	-12	-10	-12	-12	-12	-9	-8
Prezioen bilakaera	6	14	-17	6	-29	-18	-6	-17
Erosteke momentua	-19	-8	-3	-9	0	-3	-5	-2
Erosketen gauzatzea	-12	-10	-7	-12	-12	-8	-2	-7

Iturria: Laboral Kutxa.


### Enpresarien konfiantza indizea



Laboral Kutxak osatzen duen enpresarien konfiantza indizea 56,8an kokatu da, aurreko hiruhilekoko emaitza-aren aldean jaitsiera txiki bat adieraziz. Izan ere, 2018ko lehen hiruhilekorako enpresariak aurreikusten duten eszenategiak ekonomia bilakaera ez dela horren baikorra izango iradokitzen du.

Oraingo edizio honetan galdera bat gehitu da Kataluniako krisiak hemengo enpresetan 2018ko lehen hiruhilekoan izan ditzakeen eraginak jakiteko. Enpresen %82,2k uste du ez duela inolako eraginik izango bere emaitzetan eta %17,8k, ordea, guztiz kontrakoa pentsatzen du. Azken horien artean, bi heren inguruk uste du erosketetan edo salmentetan gauzatuko den eragin hori zeharkakoa izango dela.

### Enpresarien igurikimenak. 2018ko I hiruhilekoa




Enpresen baikortasun handiena fakturazioan, jardueran eta eskarietan hautematen da. Hiru atal horietan askoz gehiago dira hobekuntza nabaritzen dutenak okertzea hautematen dutenak baino. Inbertsioan eta enpleguan ere saldoa positiboa da, garbi.

## EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Europako ekonomia sentimenduaren indizeak nabarmen egin du hobera

### Ekonomia sentimendua Eurogunean





2017ko amaieran baikortasun handia hauteman zen Europako ekonomia eragileen artean. Izan ere, Euro-par Batasuneko ekonomia sentimenduaren indizea 115,9an kokatu zen. Emaizta hori hobeto ulertzeko, kontuan hartu behar da serie historiko osoan, 1990ean hasi baitzen, jaso den baliorik gorena 2000ko maiatzean lortu zela eta 117,3 izan zela. Beraz, une hauetan indize horri ia hogeita hamar urtean eskuratu-tutako mailarik gorena berdintzeko puntu bat eta erdi baino gutxiago falta zaiola. Eremuko herrialde guz-tiak baikortasuna eta ezkortasuna banatzen dituen 100eko baliotik gora daude. Alemaniaren kasuan, in-dustriaren eta eraikuntzaren sendotasuna azpimarratu behar da eta Frantzia, berriz, zerbitzuek eskain-zen dute irudi onena. Bi herrialde horiek ia etengabe hobetu dute indizea 2016ko erdialdetik.

### Ekonomia sentimendua Alemanian





### Ekonomia sentimendua Frantzia



**Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan**

Erresuma Batuko indizea 112,4an kokatu zen, aipatu diren bi potentzien zertxobait beherago, baina maila positibo garbi batean. Ez dirudi Brexitak eragin handiegirik izan duenik herrialde hartako ekonomia sentimenduan. Industriaren balorazioa oso altua da eta serie osoko datu onenetara hurbildu da. Aitzitik, hala kontsumitzailearen konfiantzak nola txikizkako merkataritzak oso balio apalak jaso zituzten.

Italiaren egoera eta Erresuma Batuarena antzekoak dira, abenduan Italiak 112,1eko balioa izan zuelako. Hala ere, kasu horretan hobekuntza hautematen da 2014ko errialdiaren ondoren. Bereziki 2017. urtea konfiantzaren berreskuratzearena izan da, 2000tik inoiz jaso duen mailarik gorenetako batean dagoelako. Azpimarratzekoa da txikizkako merkataritzaren une gozoa, bere maximotik hurbil dagoelako. Aitzitik, gainontzeko atalek irudi baikorra, baina neurritsua, eskaintzen dute.

**Ekonomia sentimendua Italian****Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainiak zailtasunak ditu 110eko langa modu argi batean gainditzeko. 2015eko abenduan lortu zuen eta baita 2017ko urrian zein azaroan ere, baina abenduan pausu bat atzera eman zuen. Ekonomia horretako indargune behinenak industria eta txikizkako merkataritza dira, baina eraikuntzaren sentimendu negatiboak kalte egiten dio indize globalari. Beste aldetik, zerbitzuek moteltzeko joera leuna erakutsi zuten azken hilekoetan.

## EAE-KO EKONOMIA

## Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>3,1</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>2,8</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,1	3,0	3,0	3,0
Administrazioaren kontsumoa	2,3	0,8	3,1	2,6	1,2	2,7
Kapital eraketa gordina	3,1	2,3	2,9	3,0	3,2	3,9
Barne eskaria	3,0	2,5	3,0	2,9	2,7	3,1
Esportazioak	1,5	0,8	-0,5	1,5	1,9	3,7
Inportazioak	1,5	0,3	-0,2	1,9	1,8	3,9
Lehen arloa	2,0	1,7	-1,5	4,2	-1,9	-1,9
Industria	2,9	2,6	2,7	2,0	2,3	2,7
Eraikuntza	1,8	2,2	2,4	2,1	1,9	3,0
Zerbitzuak	2,8	2,3	2,7	3,0	3,2	3,1
Balio erantsi gordina	2,7	2,4	2,6	2,7	2,9	3,0
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	8,4	6,4	3,3	2,4	3,0

Iturria: Eustat.

## Aurreikuspenak. 2017ko abendua

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2017	2018				2018
	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>2,5</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,5</b>
Barneko azken kontsumoa	2,9	2,8	2,6	2,4	2,1	2,1	2,3
Familien kontsumoa	3,1	3,0	2,8	2,5	2,2	2,2	2,4
Administrazioaren kontsumoa	1,9	2,1	1,9	1,7	1,5	1,7	1,7
Kapital eraketa gordina	3,3	3,3	3,2	3,2	3,4	3,4	3,3
Barne eskariaren ekarpena	3,1	3,0	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	0,0	-0,2	-0,2	-0,2	-0,1
Lehen arloa	-4,0	0,9	2,4	-1,5	-6,4	-8,0	-3,4
Industria	2,9	2,5	2,9	2,7	2,8	2,8	2,8
Eraikuntza	2,5	2,4	2,0	1,8	1,8	1,5	1,8
Zerbitzuak	3,1	3,1	2,9	2,7	2,4	2,3	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3	2,2	2,5
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,9	2,9	2,5	2,2	2,2	1,9	2,2
Enplegua	1,9	2,0	1,9	1,7	1,6	1,4	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

## EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	2,9	Hispalink (BEGren aldakuntza)	3,0	2,2
Laboral kutxa	3,0	2,7	BBVA	2,7	2,9
Funcas	3,0	2,7	CEPREDE	2,7	2,0

Iturria: CEPREDE (2017ko abendua), BBVA (2017ko azaroa), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2017ko azaroa) eta Hispalink (2017ko abendua).

## ESPAINIAKO EKONOMIA

### Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016			2017		
		II	III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>3,3</b>	<b>3,4</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>3,1</b>
Kontsumo pribatua	2,9	3,2	2,7	2,7	2,3	2,4	2,4
Kontsumo publikoa	0,8	0,9	0,8	0,0	0,7	1,1	1,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	3,6	2,7	2,7	4,8	3,8	5,4
- Aktibo finko materialak	3,4	3,6	2,9	2,8	5,0	3,9	5,4
- Eraikuntzan	2,4	2,3	2,1	3,1	4,1	4,0	4,9
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	5,5	4,1	2,5	6,3	3,8	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,4	1,6	2,1	3,7	3,2	5,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,9	2,2	2,0	2,4	2,3	2,7
Esportazioak	4,8	6,2	3,8	4,5	6,5	4,4	4,9
Inportazioak	2,7	4,8	0,8	1,6	4,9	2,3	4,0

Iturria: INE.

### Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,1	2,7	Intermoney	3,1	2,5
Axesor	3,1	2,5	Repsol	3,2	2,4
BBVA	3,1	2,5	Santander	3,2	2,7
Bankia	3,3	3,0	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,6
CaixaBank	3,1	2,4	<b>BATEZ BESTE</b>	<b>3,1</b>	<b>2,6</b>
Cemex	3,1	2,7	Gobernua (2017-10)	3,1	2,3
CEEM-URJC	3,1	2,5	Espainiako Bankua (2017-09)	3,1	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,5	Europar Batzordea (2017-11)	3,1	2,5
CEOE	3,0	2,5	NDF (2017-10)	3,1	2,5
FUNCAS	3,1	2,6	ELGE (2017-11)	3,1	2,3
ICAE-UCM	3,1	2,5	The Economist (2017-12)	3,1	2,6
IEE	3,2	2,6	Consensus Forecast (2018-01)	3,1	2,5

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

## NAZIOARTEKO EKONOMIA

### Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		II	III	IV	I	II	II
AEB	1,5	1,2	1,5	1,8	2,0	2,2	2,3
Txina	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9	6,9	6,8
Japonia	1,0	0,8	0,9	1,5	1,3	1,7	2,1
Kanada	1,4	1,0	1,5	2,0	2,3	3,6	3,0
Europar Batasuna	1,9	1,9	1,8	2,0	2,2	2,4	2,6
Eurogunea	1,7	1,8	1,7	1,9	2,1	2,4	2,6
Alemania	1,9	1,9	1,9	1,9	2,1	2,3	2,8
Frantzia	1,2	1,2	0,9	1,2	1,2	1,8	2,3
Erresuma Batua	1,8	1,8	2,0	2,0	2,1	1,9	1,7
Italia	0,9	1,0	0,9	1,0	1,3	1,5	1,7
Herbehereak	2,2	1,9	2,4	2,8	2,6	3,8	3,2

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

### Consensus Forecast. 2018ko urtarrila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,7	2,4	2,1	2,1	3,9	3,8
Japonia	1,4	1,1	0,9	1,1	2,7	2,6
Kanada	2,1	1,8	2,0	2,0	5,9	5,9
Europar Batasuna	2,1	1,8	1,7	1,8	—	—
Eurogunea	2,2	1,8	1,4	1,6	8,5	8,1
Alemania	2,3	1,8	1,7	1,8	5,5	5,3
Frantzia	1,9	1,7	1,3	1,5	9,0	8,7
Erresuma Batua	1,4	1,5	2,6	2,2	4,4	4,5
Italia	1,4	1,1	1,1	1,4	10,7	10,3
Herbehereak	2,6	2,0	1,6	2,0	—	—

Iturria: Consensus Forecast.